



ZESTOAKO UDALA

2021 DEIALDIAREN ZESTOAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA

JAKINARAZPENA

Honen bitartez jakinarazten dizut, Alkate jaunak. 2022eko urtarrilaren 13an emandako 4.zk duen ebazpena, honako hau xedatzen duena,

GIZARTE ZERBITZUEN INFORMAZIO BATZORDEAK, Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak kudeatzen duelarik, diru-laguntzaren bigarren ordainketa egiteko honako ebazpen-proposamena jakinarazten dio ebazteko gaitasuna duen organo eskudunari ondorengo kontuan hartuz:

- 2021ko apirilaren 26an, Zestoako Udalak Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza argitaratu zuen Udalaren Web orrialdean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea 2021ko irailaren 1ean amaitu zen eta epe barruan 14 eskaera aurkeztu dira, eta horiek Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuen informazio batzordeak baloratu zituen Udalbatzak onartutako oinarriak kontuan izanik.
- 2021ko urriaren 18an Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdiaren **behin-betiko ebazpena** eman eta lehenengo ordainketa egin zen.
- Bigarren ordainketari dagokionez, 2021eko abenduaren 24an ebazpen proposamena publikatu zen Zestoako Udaleko web orrian, publikatu eta hurrengo egunetik aurrera hamar eguneko entzunaldi epea emanez.
- Alegazioak aurkezteko epea amaitu da eta ez da inolako alegaziorik jaso diru-laguntzaren ebazpen-proposamenaren inguruan.
- Udalaren aurrekontuan laguntzaren inguruan egindako kontsignazio ikusita, eta Alkatezua izanik laguntza ebazteko eskumena duen organoa

ERABAKI DUT

LEHENA.- Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdiaren **behin-betiko ebazpena** ematea.

Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdia 2021 urterako.

Bigarren ordainketa

| ZESTOAKO UDALAK ONARTUAK | |
|--------------------------|-------------------------------------|
| ONURADUNA (NAN/IFK) | ONARTUTAKOA (Urritik - Abendura) |
| 72523**** | 520,29 € |



ZESTOAKO UDALA



2021 DEIALDIAREN ZESTOAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA

JAKINARAZPENA

| | |
|-----------|-------|
| 72496**** | 675 € |
| 72464**** | 750 € |
| 20181**** | 750 € |
| 72545**** | 660 € |
| 72465**** | 660 € |
| 72471**** | 600 € |

| ZESTOAKO UDALAK ONARTUAK (Gaztelagun diru-laguntza jaso izan arteko denbora tartea) | |
|----------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------|
| ONURADUNA (NAN/IFK) | ONARTUTAKOA (Urtarriletik-Urrira) |
| 44334**** | 1.250,00 € |

BIGARRENA.- Ebazpen hau diru-laguntza jasotzeko eskaera egin duten interesdun guztiei jakinaraztea eta Zestoa Udaleko web orrialde ofizialean publikatzea.

HIRUGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak ospatuko duen hurrengo saioan Alkate Ebazpen honen berri ematea.

Jakin dezazun eta ondorio egokietarako adierazten dizut hori, erabakia behin-betikoa dela eta administrazio bideo amaitzen duela jakinaraziz. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean. Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke Zestoako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Zestoa, 2022ko urtarrilaren 13an

IDAZKARIAK

O.e
ALKATEAK

